

Mungian, 2005eko urriaren 21ean

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu eta
Piarres Xarriton euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Jose Antonio Adu-
riz eta Mikel Gorrotxategi, zegozkien
gaietan.

du. J.L. Lizundia eta A.Arejita ere *Bilbao*-ri ere jatorrizko euskaltasuna aitortzearen alde agertu dira. X. Kintana bat dator proposamen horrekin. P. Goenaga, P. Salaburu eta M. Gorrotxategi ere mintzatu dira, oin-oharren bat jartzekotan oso argia izan dadila eskatuz. Azkenean «Bilbo da euskal izen arautua. Bilbao erdaraz gorde den euskal izen zaharra da» oin-oharra onartu da. Gainerako izen guztiak oharrik gabe ontzat eman dira.

2.1.2. «Bizkaiko Herri Izendegia (VII) Enkarterri» aurkeztea. Proposamena A. Iñigok aurkeztu eta azaldu du. Oharrak datorren hileko 17ra arte bidali ahal izango dira.

3. Eskuartekoak:

3.1. Lauaxetaren inguruan Mungiako egitekoen programa banatu da.

3.2. BBK – Euskaltzaindiaren arteko lau literatur sari nagusietarako 2005eko epaimahaikideak izendatzea. Zuzendaritzaren proposamena ontzat eman da, izendapen hauek berretsiz:

- Txomin Agirre sarian: Maria Jose Olaziregi, Ur Apalategi eta Ana Toledo.
- Toribio Altzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia sarian: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- Mikel Zarate sarian: Aurelia Arkotxa, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Ezin etorriak eta ahalak:

Ibon Sarasolak ezin etorria adierazi du. Patxi Zabaletak ere bai, ahala A. Iñigori emanez; bai eta Antonio Zavalak ere, eta ahala A. Arejitari eman dio.

Batzarra goizeko 10,10etan hasi da Mungiako Agirre jauregian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

2. Onomastika

2.1.1. «Bizkaiko Herri Izendegia (VI) Uribe II» onartzea. X. Kintanak bere oharra azaldu du *Bilbao* forma zaharra mantentzearen alde. A. Iñigok azken mendeotan idazle gehienek erabili duten forma *Bilbo* dela dokumentuekin erakutsi

3.3. Jose Mari Aranalde euskaltzain urgazlearen hilberri txostena Jose Mari Iriondo euskaltzain urgazle eta Herri Literatura batzordekideak egitea proposatu du zuzendaritzak. Holaxe onartu da.

4. Juan San Martin euskaltzain zenaren ordezkoa hautatzea

Kandidatu bakarra izanez, botazioa eginda, Ana Toledok bere alde 18 boto izan ditu, eta horrela, aho batez, euskaltzain izendatua izan da.

5. Hiztegi Batua

5.1. E letratik oharrak gabeko hitzen zerrenda banatu da.

5.2. Pello Salabururen gidaritzapean *berrizale-byte* zerrendari egin zaizkion oharrrak aztertu eta erabakitzen jarraitzea. Jose Antonio Aduriz euskaltzain urgazle aholkularia batzar-aretoa sartu da. *Burlatze*-tik *byte*-erainoko hitzak aztertu eta erabaki dira.

5.3. Ondoren C letrarekin hasi da. Pertsona-izenetan oinarrituriko hitzen grafiaz eztabaida luzea egin ondoren, arazo hori argitzeko, Hiztegi Batuko lantaldeak zerrenda egin beharko du pertsona-izenetatik eratorririko izenen grafiaz. Ingelesetiko hitz hartu berrien arazoa ere eztabaidatu da. *Cava* hitzeraino heldu da.

Batzarra 14etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria